



HEZKUNTZA PROIEKTUA

EZAUGARRI NAGUSIAK

IBAI IKASTOLA Donostiako IBAETA auzoan kokatuta dago eta Haur eta Lehen Hezkuntzako "D" Ereduko, ikastetxe Publikoa da: integratzailea, akonfesionala eta anitza.

- Bi lerroko ikastetxea da. Bi eta 12 urte bitarteko heziketa jarraia eskaintzen du. Bi lerroko ikastetxea da. ANTIGUA-LUBERRI institutoan dute hemezortzi urte arteko jarraipena.

- Auzoko ikastetxea da, nahiz eta auzo bezala dinamika duen eremua Igara - Errotaburu izan, bere eragin -eremua zabalagoa da: Ondarreta, Matia, Lugaritz, Benta -Berri, Arriola, Berio, Lorea, Errotaburu, Igara.

PRINTZIPIOAK

HEZIKETA INTEGRALA

- 1.- Ikasleari bai esparru indibidualean eta bai sozialean heziketa integrala eskainiko dio, bere gaitasun guztien garapen orekatua bultzatzen ahaleginduz. Ikaslearen heziketa emozionala garatzeko, ikastetxean giro afektibo-positiboa sustatuko da.
- 2.- Familia eta eskolako estamentu ezberdinek izango dute heziketaren ardura.
- 3.- Pertsonen arteko ezberdintasunak ikasleen heziketarako alderdi positibotzat jotzen ditugu. Hezkidetzaren geuregain hartzen dugu.
- 4.- Eskola inklusiboa izango da eta "aniztasunari erantzuna" oinarritzko irizpidea izango da hezkuntza sisteman.
- 5.- Hezkuntza jarduera arrazoian eta elkarrizketan oinarrituko da.

PEDAGOGIA

6.- Curriculumaren izaera diziplinartekoa izango da. Gaitasunei (konpetentziei) eta lortu behar diren helburu didaktikoei ongien egokitzen zaizkien estrategia, aktibitateen diseinu eta aukeraketa egingo da. Batez ere konpetentziak garatzeko:

- Gelan giro atsegina sustatuko dugu.
- Aprestua aktiboa bultzatuko dugu: partehartzailea.
- Autonomia eta esfortzua sustatuko dugu.
- Ikasitakoari funtzionaltasuna aurkituko diogu.

7.- Ikastetxeko Proiektu Curricularrean kohesioa egon dadin, irakasleak talde lana egitea ezinbesteko baldintza izango da.

HIZKUNTZA ETA KULTURA

8.- Euskara izango da irakaskuntza eta komunikazioko tresna.

9.- Ibai Ikastolako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan Euskal kulturak lehenetasuna izango du, ikaslea bere ingurune sozio-kulturalan oinarrituz eremu zabalago bateko partaide sentitu araziz.

PARTE HARTZEA

10.- Ibai Ikastolaren kudeaketa parte hartzailea izango da eta estamentu ezberdinek parte hartuko dute.

11.- Harremanetan sortzen diren gatazkak era positiboan bideratuko dira.

EBALUAZIOA

12.- Ikastetxeko estamentu ezberdinen ebaluazioa bultzatuko da.

HELBURUAK

HEZIKETA INTEGRALA

- 1.- Ikaslea- pertsona bere osotasunean (afektiboa, fisikoa, kognitiboa, profesional) garatzea.
- 2.- Ikastetxeko estamentu ezberdinen parte-hartzea eta gatazkak era positiboan bideratzen bultzatzea.
- 3.- Errespetua oinarrizko balore bezala hartuz, giza eskubideekiko jarrera baikorra bultzatzea.
- 4.- Ikasle autonomo, iritzi kritikodun, arduratsua izateko jarrerak bultzatzea.
- 5.- Ikastetxeko talde bizitzan eta jarduera ezberdinetan, hezkidetza lantzea.
- 6.- Ikastetxe barruan lehiakorkeria bultzatu gabe kooperaziorako hezitzea, honetarako bitartekariak jarritz.
- 7.- Ikasleen arteko harremanak potentziaz, ikasleak taldean txertatuta edo integratuta egotea bultzatzea.
- 8.-Ikas-irakas prozesuan ikasle guztiek. oinarrizko konpetentzia gaitasunetan, ahalik eta garpen handiena lortzea.

HIZKUNTZA ETA KULTURA

- 9.- Seigarren maila bukatzerakoan euskara eta gaztelera bere osotasunean eta ingelesa dekretuan adierazten duen ezagutzea lortzea.
- 10.- Ikastetxe barne eta kanpoko jardueretan ikasleak euskara erabiltzen saiatzea.
- 11.- Curriculumaren bidez Euskal Kultura transmititzea eta honekiko interesa sortzea, honela Euskal Herria ezagutzetik abiatuz eta ingurune eta kultura zabalagoak ezagutzuz gizartearekiko partaide sentiarazteko.
- 12.-Ibai Ikastolan estamentu ezberdinetan euskararen erabilera bultzatzea.

EBALUAZIOA

13.- Ikastetxeko estamentu ezberdinen ebaluazioa indartzea.

14.- Irakas-ikaskuntzako ebaluazioa ez kontroltzat baizik eta ebaluazio hezitzaile bezala ulertuz, egoera aztertu, prozesua orientatu eta helburuak lortu diren ala ez egiaztatzeke bideratzea.

IRAKASLEAK

15.- Tutoretza plangintza baten bidez ikasle eta hauen gurasoei etengabeko jarraipena eta orientazioa eskaintzen ahalegintzea.

16.- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, helburu, eduki, metodologi eta ebaluazio irizpideetan Ziklo eta Etapa ezberdinetan behar bezalako koherentzia egon dadin, koordinazioa bideratzea..

GURASOAK

17.-Ikastetxean gurasoen partaidetza bultzatzea.

18.- Prestakuntzarako planen bidez, gurasoei seme-alaben heziketan duten zereginean laguntzeko formakuntza antolatzea.

19.-Irakasle eta gurasoen arteko harremanak irekiak izan daitezen ahalegintzea.